

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak abenduan onartuko du Foru Komunitateko Boluntariotzaren lehen Jarduera Plana, 2020 arte indarrean izango dena

*Datozen urteetan boluntariotza sustatzeko plan integrala bermatzeko oinarriak ezarri nahi dira*

Asteazkena, 2018.eko abenduak 5

Nafarroako Gobernuak abenduan onartuko du Foru Komunitateko Boluntariotzaren lehen Jarduera Plana, 2018-2020 denboraldirako jarduera-proposamena ezartzen duena, Nafarroan boluntario-lana ezagutzeko, onartzeko, indartzeko eta bultzatzeko modu irmoan eta etengabean laguntzera bideratua. Jarduera Plana Boluntariotzaren Departamentu arteko Batzordeak egindako proposamenean oinarritzen da, eta horren helburua da, baita ere, datozen urteetan boluntariotza sustatzeko plan integrala bermatzeko oinarriak ezartzea. Plana Nafarroako Boluntariotzaren Kontseiluan aurkeztuko da, kontuan har dezan.

Nafarroako Boluntariotzaren inguruko 1998ko Legean, boluntario-lana guztion onurarako ahalegin kolektiboaren, solidarioaren eta altruistaren isla bezala definitzen da, herritarren parte-hartzea aktiboa, libre, solidarioa, altruista eta arduratsua izanik. Lehen mailako tresna bat da demokrazian sakontzeko, herritarren parte-hartze antolatua dituen balio inplizituengatik eta interes orokorrekiko konpromisoa erakusten duelako, justizia, gizarte-kohesioa eta gizarte inklusiboagoa, harreman handiagokoa eta parte-hartzaileagoa erraztuaz.

Izpiritu hori aintzat hartuta, herri-administrazioen erantzukizuna da herritarren inplikazioa onartzea eta sustatzea Nafarroako Foru Komunitatearen garapen sozialean, guztion onera bideratutako era guztietako parte-hartze sozial antolatua eta gizarte berdina, solidarioa eta parte-hartzaileagoa zuzendutako aurrerapena sustatuaz.

Boluntariotzaren 2014ko Estrategia definitzen erakunde sozialek egindako parte-hartze ahaleginaren ondoren, beharrezkoa zen koordinatzeko erreminta bat izatea, hots, Jarduera Plana, Departamentu ezberdinak, banaka, ezartzen eta gauzatzen aritu diren jarduera bideratzeko eta ezagutzera emateko. Jarduera Planaren xedea da boluntariotza berreskuratzeko lan egitea, gainerako eginkizunen artean lehentasunezkoa zela ikusi baita.

Hori dela-eta, iazko urtean zehar eta 2018ko lehen hilabeteetan, Boluntariotzaren Departamentu arteko Batzordearen esparruan, plan errealista bati forma ematen aritu dira, modu koordinatuan, eraginkorrean

eta denboran iraunkorra den moduan, Nafarroako Gobernuak erantzukizuna har dezan boluntariotza zaintzeko eta sustatzeko.

Berez helburu bat baino gehiago, Planaren asmoa da batez ere bitarteko bat izatea datozen urteetan boluntariotza sustatzeko plan integrala bermatzeko oinarriak ezartzeko, boluntariotza bultzatzen inplikaturiko aktore guztien artean egituraketa eta lankidetzaz hobearen aldeko apustuan oinarrituta. Era horretan, erronka da Nafarroan gizarte zibil antolatua eta solidarioa garatzea eta finkatzea erraztea.

### **Helburuen proposamena**

Boluntariotzaren Jarduera Planaren helburuak hauek dira:

-Nafarroako gizarte boluntariotzak duen zentzuaren inguruan sentsibilizatzea eta kontzientziatzea, balioak eta herritarren parte-hartze aktiboaren eta solidarioaren garrantzia sustatuz.

-Boluntariotzako erakundearen garapena eta hazkundea indartzea eta erraztea, boluntariotza artatzeko eta kudeatzeko prozesuen hobekuntza indartuz.

-Koordinatzeko sistema eraginkorra eta iraunkorra garatzea inplikaturiko agente guztien artean, Nafarroan boluntariotzaren bultzada egonkorra, solidoa eta koherentea izatea bermatu dadin.

-Nafarroako boluntariotzaren errealitatea eta inplikaturiko agente ezberdinen premiak hobeto ezagutzea.

Jarduera Plana bultzatzeko, funtsezkoa da Batzorde Tekniko bat egotea, Departamentu arteko Batzordearen funtzioak ezartzea bermatuko duena (organikoki horren mende egongo litzateke), aldi berean Nafarroako Boluntariotzaren Kontseilua dinamizatzea eta bi organoen arteko alienamendua bermatuz. Batzorde Teknikoaren ardura izango da Nafarroako Boluntariotzaren etorkizuneko Informazio eta Koordinazio Puntua diseinatzea, aktibatzea eta gobernatzea, 2018-2020 Jarduera Planetik eratorritako zeregin guztiak gauzatzeko arduratzen den zentroa bezala.

2019. urteari begira, Jarduera Planaren aurrekontua 142.000 eurokoa izango da, eta horietatik 80.000 Boluntariotzaren Informazio eta Koordinazio Punturako izango dira eta beste 40.000 sentsibilizatze eta erakartzeko kanpainetarako. Beste 7.000 euro Nafarroako boluntariotzari buruzko lehen azterketa egiteko erabiliko dira.